

## El gaztetxe de Iruñea acepta uno de los locales que le ofrece el ayuntamiento

---

IRUÑEKO GAZTETXEA :: 16/01/2016

Queremos recordar una vez más que lo conseguido ha sido mediante la movilización popular y no por concesiones institucionales

Prentsaurreko honen bidez, Gaztetzeko Asanbladatik orain arte egindako bideari buruzko analisisa egin nahi dugu, baita momentu honetan bizi dugun egoerari buruzko azalpenak eman ere.

Hasteko eta behin, ez dugu soilik okupazioa zilegizko tresna gisa aldarrikatu nahi, baizik eta autogestio proiektuak eraikitze bide eraginkor bezala ere. Hona arteko bidea okupazioaren bidez egin dugu, hortaz, baliozko tresna izaten jarraitzen du. Era berean, eraikina bera sekula ez da helburu izan bere baitan, baizik eta bide bat gure proiektua garatzeko.

Lehen unetik argi utzi genuen elkarriketarako prest geundela. Eta hala izan da, Nasuvinsako jabeekin eta Nafar Gobernuarekin, baita Iruñeako Udaleko ordezkariekin egin ditugun bilerak erakusten duten moduan.

Gaztetzearen gaineko hustutze arriskua egon da, eta era bortitzago batean azkeneko egunotan, hori gobernuaren erantzukizun zuzena delarik.

Horreri Geroa Bai-ren eskutik

egindako hustutze eskaera eta hainbat komunikabidek burututako intoxikazio interesatua gehitu beharra zaio, horiek denak ustezko "aldaketaren eragileak". Are gehiago, aste honetan bertan

gaztetzera notario bat bertaratu zitzaigun identifikatu gintezen eskatuz, eta beste behin mehatxatuz, oraingoan prozesu judizial bat irekiko zuela adieraziz, hilak 18rako lokala hustuta izango ez

bagenu.

Azkenik, Udalari berak eskainitako eraikin bati baiezkoa ematea adierazi diogu. Hau ez da jasandako presioen ondorioz izan, baizik eta asanbladak bere proiektuaren beharrizan eta ezaugarriei egokitzen den eraikin baten beharrari irmo eutsi izanagatik. Honen aurrean, titulartasun, erabilera eta kudeaketari dagozkion akordioaren baldintzei buruz zabalduko informazio oro

gezurdatzen dugu. Izan ere, baldintza hauei buruz ez dugu hitzegin Udaletxearekin. Honen guztiaren aurrean, genuen jarreraren tinko mantentzen gara: lokal hutsak daudela salatuz eta gazteontzako lokal autogestionatuen defentsan eginez.

Beste behin ere, orain arteko lorpenak herri mobilizazioei eskerrak lortu izan direla aldarrikatu nahidugu, eta ez kontzesio instituzionalen ondorioz. Modu berean eta Gaztetzeari mantentzeko

mobilizazioa ezinbestekoa izango da. Herri eta gazte mugimenduaren eskutik datorren

lorpen baliotsu hau ospatzen dugu eta kolektibo, asanblada eta mugimendu ezberdinei borrokan jarrai dezatela animatzen ditugu. Gaur inoiz baino gehiago, borroka kalean dago.

Azkenik, Tolosako Ezpala Gaztetxeko gazteei gure babesik beroena eman nahi diegu, desalojoa sufritu baitute aste honetan bertan. Egoera honen arduradunak betiko amets zapaltzaileak izan dira eta beste behin ere, horiei gure mespretxu handiena adierazi nahi diegu. Gaur bertan Tolosan egingo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen dugu. Biba zuek!

**AUTOGESTIOA AURRERA! GAZTETXEAK AURRERA! Gazte boterea eraiki!**

\*\*\*\*\*

Mediante esta rueda de prensa, desde la Asamblea del Gaztetxe queremos hacer un análisis del camino recorrido hasta ahora, así como explicar la situación en la que nos encontramos a día de hoy.

En primer lugar, queremos reivindicar la okupación como herramienta no sólo legítima para conquistar espacios, sino como una vía que se ha demostrado útil para construir proyectos de autogestión. Es mediante la okupación como hemos llegado hasta aquí, por lo que sigue siendo un instrumento totalmente válido. Igualmente, el edificio en cuestión nunca ha sido un fin en si mismo, sino un medio para desarrollar nuestro proyecto.

Desde el primer momento dejamos claro que estábamos abiertas al diálogo, el cuál se ha llevado a cabo estas semanas tanto con los propietarios de Nasuvinsa y Gobierno de Navarra como paralelamente con el Ayuntamiento de Pamplona. No ha faltado, y de manera más intensa en los últimos días, el riesgo de desalojo que planeaba sobre el gaztetxe, lo cuál es responsabilidad directa del Gobierno, a lo que hay que sumar la petición de desalojo por parte de Geroa Bai, así como la intoxicación interesada de ciertos medios de comunicación, todos ellos supuestos agentes del cambio. Es más, esta misma semana se personó un notario en el Gaztetxe para identificarnos, y se nos amenazó de nuevo, esta vez con abrir un procedimiento judicial el día 18 de este mes si no abandonábamos el local.

Finalmente hemos comunicado al Ayuntamiento nuestra disposición a aceptar uno de los edificios que nos ofrecen. Esto no ha sido fruto de las presiones recibidas, sino por la firme determinación de la asamblea de cara a conseguir un local que se adecuara a las necesidades y características de nuestro proyecto. En este sentido queremos desmentir las informaciones aparecidas en torno a las condiciones del acuerdo respecto a su titularidad, uso y gestión de las cuáles ni siquiera se ha hablado aún con el consistorio. Respecto a ello, seguimos estando donde hemos estado siempre: denunciando la existencia de locales vacíos y defendiendo locales autogestionados por la juventud.

Queremos recordar una vez más que lo conseguido ha sido mediante la movilización popular y no por concesiones institucionales. En la misma línea y para que esto se mantenga será imprescindible dicha movilización. Celebramos esta valiosa conquista por parte del

movimiento popular y juvenil y animamos a los colectivos, asambleas y diversos movimientos a seguir peleando. Hoy más que nunca, la lucha está en la calle. Por último, queremos dar todo nuestro apoyo a los y las jóvenes de Ezpala Gaztetxea de Tolosa, que han sufrido recientemente un desalojo por parte de los asesinos de sueños de siempre, a los que queremos mostrar nuestro máximo desprecio. Desde Iruñea nos sumamos a la manifestación de este sábado. Aupa zuek!

AUTOGESTIOA AURRERA! GAZTETXEAK AURRERA! Gazte boterea eraiki!

---

<https://eh.lahaine.org/el-gaztetxe-de-irunea-accepta>